

- Ingurugiroari buruzko ihardunaldi eta kongresuen antolakuntza.
- Baliabide eta aholkurako zentroen sorkuntza (PAT/COP, CEIDA).

Zer bide jarraitu dira

- Ingurugiroa, ikasteko tokia bezala: *hezkuntza ingurugiroan* (ibilaldiak,...).
- Ingurugiroa, bera ezagutzeko helburua bezala: *ingurugiroari buruzko hezkuntza*.
- Ingurugiroa, horri buruz dauzkagun ideiak, jarrerak aldatzeko: *ingurugiroaren aldeko hezkuntza*.

Erreforma ondoren

Nola gelditu da

- Curriculum-ean barruan sartuta dago. Ikasleak formatzeko xedea du.
- Zehar lerroa bezala, arlo guztiak inplikaturik.
- IH, DBHaren edukinekin bat dator, biak edukin kontzeptuala, prozedura eta jarrerazkoak lantzen bait dituzte.
- IHren helburu nagusia ingurugiroari buruzko jarreraren aldaketa da, DBHn ere baloreen tratamendua, berria eta inportantea da.
- OCDn, irakasle mailan talde-lana oso inportantea jotzen da, IHN bere izaera disziplinartekoa ere garrantzitsua da.

Zer bide hartu da ardatz bezala

- *Ingurugiroari aldeko hezkuntza* lerro nagusia da.

Gaur egungo eskolako egoera/beharrak

Zeintzuk dira IH eskolan aurrera eramateko izango ditugun beharrak? Zeintzuk ditugu jada? Ondoko lerrotan inportanteenak eta arinetan aztertzen dira.

Infraestruktura

- Eskolatik kanpoko ekintzak burutzeko zentro ugari daude.
- Zentro dinamizalea dugu CEIDA hain zuzen.
- Bibliografia aldetik ugaria da, bai liburu, bai aldizkari, bai eta egunkariko berri mailan ere.

Zoritxarrez *euskara mailan arazoa larria dugu* liburu, bideo, etabarreko baliabideak oso eskasak bait dira. Maila honetan, beharrezkoa da materiala sortzea, gelako liburutegi zabala edukitzea beharrezko baldintza delako, erreformak eskatzen duena ikusita.

Diru-laguntzak

- Ba dago, gela edo zentro mailan esperientziak aurrera eramateko, bai Ingurugiro saila, baita Hezkuntza sailak ematen duena ere. Diru-laguntza hauek zenbait kasutan talde dinamitaren bultzatzaile bezala har daiteke.

Irakasleen formakuntza

- Dударik gabe punturik inportanteena da. Formakuntza maila ezberdinetan, talde-lana, baloreen irakaskuntza, IHko edukin kontzeptualak, gelako lan—metodologia, besteak beste.

Arazo batzuk planteiatzen dira, alde batetik *zer nolako formakuntza-eredu jarraituko den*, ikastaro teknikoak, bakarka

mailan/zentro mailan,..., bestetik, kontutan hartu behar da *IH aurrera eramateko behar diren kontzeptuak ikastea ez dela arazorik larriena, gelan, irakasle-taldeetan, zentroan, etabarran nola antolatu* baizik.

Materiale didaktikoa

- Irakasleentako eredu bezala har ditzaken materialak sortzea oso inportantea jotzen dugu, materiale hauek sortzeko irakasle-taldeak bultzatzea beharrezkoa delarik. Zentzu honetan lehen aipaturiko diru-laguntzak aproposak izan daitezke.

Bide honetan esan behar da, *inportante dela* esparru hau jorratzea, *eredu aniztasunik ez* badaude, editorialek argitaratutako liburuak soilik, irakasleen erreferentzia puntua izango bait dira.

Ondorioak

Aztertu dugunez, bidea jada hasita dago, badugu esperientziarik, infraestruktura ere badago, teoria ere finkaturik daukagu eta zenbait eredu ere agerian daude.

Arazoa da batez ere, erreformarekin batera hezkuntza mailan sartu diren kontzeptu berriak barneratzea, hala nola, zehar lerroak, irakasle lan-taldeak, gelako talde dinamika, ebaluazioa,...

INGURUGIRO-HEZIERA-RI BURUZKO MAHAI INGURUA

TERESA NUÑO

E.H.U.ko Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila.

Arabako Irakaslegoaren Unibertsitate Eskola.

Ingurugiro-Hezieran Euskal Herriko Unibertsitateak jokatzen duen papeari buruzko gogoeta batzuk plazaratzen saiatuko naiz, Irakaslegoaren Hasiera - eta Etengabeko Prestakuntzaren ikuspuntutik nagusiki; halaber Ingurugiro-zientziei buruzko prestakuntza ere aztertuko dut.

Euskal Herriko Ingurugiro-Heziketaren II. Ihardunaldien¹ Unibertsitatea lan taldearen ondorioetan biltzen denez, *Unibertsitatearen zeregina Ingurugiro-Heziketan honako alor honetara zuzendu beharko litzateke:*

- Irakaslegoaren Hasierako eta Etengabeko prestakuntza*
- Ingurugiroan bereziki eskuartzen duten teknikoaren prestakuntza (ingenierariak, teknikoak, gestoreak, arkitektoak, abokatuak, ekonomilariak, etabarrak)*
- Irakaskuntza ez eratu.*

A) Irakaslegoaren prestakuntzari dagokionez daukagun egoera aztertzen saiatuko naiz.

— *Irakaslegoaren Hasiera-Prestakuntzarako* Unibertsitate Eskolek (Magisteritza Eskolek) eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, beraien Ikasketa-planetan biltzen denaren araueraz, ezer gutxi egin dute Ingurugiro-Heziera garatu eta aurrera eramateko beharrezkoak diren gaitasunak eta jarreak

1. Ingurugiro Heziketaren II Ihardunaldiak, 1991 eko urriak. Bilbo.

sor arazteko formatzen duten irakasle goaren. Egoera antzekoa edo txarragoa aurkitzen delarik Hezkuntz Zientzien Institutua HEZI/ICE delakoaren papera aztertzerakoan.

Orain Unibertsitateko Ikasketa Planen berritze prozesuan aurkitzen gara, baina Irakasle goaren titulazio berriak aprobatazke daudenez, datu zehatzak ezin ditut aurreratu. Baina Haur hezkuntza eta Lehengo hezkuntzaren irakasle goaren ikasketa-planen dagokienez, zehar lerroekiko eta, hain zuzen ere, Ingurugiro-Hezierarekiko prestakuntzan zuzenduko kredituen banaketa oso eskasa, optatibitatearen bidezkoa eta Zientzia esperimentalen eta Gizarte-zientzien Sailen arteko "tarta"/kreditu-banaketa ondoia izan dela, azpimarratu nahi dut.

Bigarren hezkuntzaren irakasle goari dagokienez, prestakuntza orokorra Falkutateetan egiten da, Espezialitate bakoitzari dagokion 5 urtetako Lizentziatuetan (b atalean azalduko dut nola dagoen egoera) eta Prestakuntza didaktikoa, Pedagogi Gaitasunerako Ikastaroa, hots, CAP delakoaren bidez burutzen da. Azken ikastaro honetan ingurugiro-hezierari buruzko inolako kreditu edo asignaturarik ematen ez delarik.

— *Irakasle goaren Etengabeko Prestakuntza* arloan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren babespenaz, 3 kam-pusetan banandurik E.H.U.ko zenbait Didaktika Espezialen Sailek eginiako ikastaroen eskaintza aztertzen badugu, azken 3 ikasturteetan zehar eta orohar harturik, urte urte eskaintza gero eta handiagoa dela ingurugiro-hezierari dagokionez ondoriozta daiteke, ikastaroak unibertsitate aurreko irakas-kuntzen irakasle goari zuzentzen zaizkiolarik baina hutsu-ne nabarmenak Haur hezkuntzan batez ere aurkitzen ditugu. (Ikus eraskin 1)

B) Ingurugiro-Zientzietarako berezilarik edo adituen prestakuntzari begiratuz, zenbat karreratan espezializazio-mailaren araberez, ingurugiro-krisia eta problematikaren ebaluaketa eta jectorako nolabateko prestakuntza aurkitzen da, baina gehi-entan kreditu optatiboen bidez eta zientzia bakoitzaren ikuspuntu-tik soilik, hau da, Ingurugiro-zuzenbidea. Zuzenbide karreretan, Ingurugiro-kutsadura Kimikarientzat, Energi Iturri Berriak Ingeniarientzat Ekologia Biologoentzat, Demografia Soziologoentzat, Garapenerako Ekonomia Ekonomilantzat eta Biogeografia Geografia-Lizentziatura-tan².

Baina, gizakiok inguruarekiko (Antropozentrismoa) sortu eta garatu ditugun, eta gizakion artean (Androzentrismoa, Etnozentrismoa,...) gertatzen diren erlazio depredatza-deen ondorioz, biosfera osoan sorturiko desorekeek sorturiko deso-rekeek sortu dituzten krisiak ezin dira ulertu eta askoz gutxiago konpondu, ikuspuntu partzialetatik (ohizko jakintz arloak), hau da, goian aipaturiko ikasketa-planetan aurkitu dugun eredu antzekoren batez bialaturik, disziplina bernen bidetik edo disziplinartekotasunaren begirada sistemikoetatik baizik.

Egoera antzekoa aurkitzen dugu E.H.U.ko Doktoradutza-Programetan eta Berezko Tituluetan: bai Master bai Graduondoetan, nahiz eta eskaintza honetan disziplinarteko-tasun handiagoa agertu, batez ere ingurugiro-Hezieraren Graduondoari dagokiona, edo behintzat asmo horretatik abiatu gara diseinua eta garapena egiterakoan.

1993-95 biurteko *Doktoradutza-programak* aztertzerakoan, ondoan aipatzen diren 5 programa (19,5%) aurkitzen ditugu, zuzenki erlazio naturik ingurugiro-zientziekin:

2. Datu hauen gehiengo gaurko Ikasketa Planetatik aterata daude, zeren Topografia-Ingenieritza, Informatika Ingenteritza, Geografia, Ekonomia, Historia, Psikologia, Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioarako Lizentziaturak ezik, beste ikasketa-plangitzak aprobatazen dauden.

ERANSKIN 1

Irakasle goaren Etengabeko Prestakuntza arloko ingurugiro-hezie-rarekin erlazio naturiko ikastaroak

1990-91 ikasturtean

- "Articulación de contenidos y procedimientos en el estudio del entorno"
- "Vulcanología en Vizcaya"
- "Diseño curricular de la geología en el ciclo obligatorio de enseñanza basado en el estudio del entorno próximo"
- "Análisis de los fundamentos del DCB de las Ciencias Sociales en la ESO a través de los ejes educativos" Azken honetan, zehar lerroak garatzen direnean Garapenerako Heziera eta Bahea eta Giza-esku-bideerako Heziera besterik ez direla lantzen aipagarria izanik.

1991-92 ikasturtean

- "Itinerario de la Naturaleza"
- "Curso teórico práctico sobre Educación Ambiental en el medio urbano"
- "Puntos de interés geológico y su aplicación didáctica"
- "Vulcanología en Vizcaya"

1992-93 ikasturtean

- "Análisis y difusión del DCB del área de Ciencias Naturales en la ESO. Tratamiento didáctico de algunos conceptos"
- "Valores, actitudes y líneas transversales en las nuevas arcas curriculares"
- "Bases de desarrollo curricular del área de ciencias sociales de la Educación Secundaria desde la perspectiva de las líneas transversales"
- "Bases de desarrollo curricular del área social de la Educación Primaria desde la perspectiva de las líneas transversales"
- "Bases de desarrollo curricular del área social de la Educación Primaria desde la perspectiva de las líneas transversales"
- "Educación medioambiental en el DCB de la ESO. Estudio de Problemas ambientales del entorno próximo"
- "El Area de Experiencias en Educación infantil"
- "Didáctica del conocimiento del medio natural para la Educación Primaria"
- "Programación de ciclo y/o aula y áreas transversales"
- "Los itinerarios de la naturaleza como recurso didáctico de la Educación Ambiental"

— Zientzia esperimentalen arloan: *Landare-Biología eta Ekologia*

— Irakaskuntza Teknikoen arloan: *Ingurune-Ingeniaritza*

— Gizarte-zientzien arloan:

* *Nazioarteko Ekonomi Agertokia: aldaketak eta inpl-kazioak garapen-arazoetan*

* *Aldaketa-prozesuak gaurerungo gizartean*

— Giza zientzien arloan: *Gizartea eta Espazioa Geografia, Historiaurre eta Arkeologiaren perspekti-bak.*

Bestaldetik, beste 16 programatan ingurugiro-zientziekin erlazio naturiko kreditu batzuk aurkitzen ditugu ere.

1993-94 ikasturteko *E.H.U.ko Berezko Tituluei* dagokienez

— Zientzia Esperimentalen arloan: *Ingurunearen ebalua-zioa eta berreskurapena* (Unibertsitate-Masterra)

— Irakaskuntza teknikoen arloan: *Ingurugiroaren Ingeniaritza-Teknologiak* (Graduondoko Unibertsitate-Diploma/Adiltua) eta *Ingurugiroaren Ingeniaritza* (Unibertsitate-Masterra)

— Gizarte-zientzien arloan: *ingurugiro-zuzenbidea eta ingurugiro-heziera* (Graduondoko Unibertsitate Diplomak)

Halaber, beste zenbait Berezko titulutan *ingurugiro-heziketaren* gaiari buruzko 2 kreditu sartzen dira: *Gizarte-hezkuntza eta Helduen Hezkuntza*; *ingurugiro-osasunari* buruzko 5 kreditu OSASUN PUBLIKOAN; *ingurugiroa eta osasuna* 9 krediturekin agertzen da Osasunpublikoaren Masterrean eta azkenik, *ingurugiro-eragina* 5 krediturekin *Energia eta eragin-kortasunari* buruzko Masterrean.

C) Irakaskuntza ezaratuari dagokionez, Arabako Kampusean, E. H. U.akazken 2 ikasturteetako “*Unibertsitate-Hedakuntza Iharduera eta ikastaroetan*” biltzen den eskaintza aztertzerakoan, honako programa aurkitzen ditugu: “*Aproximación a la realidad de los países del tercer mundo*”, “*Problemas actuales sobre alimentación y nutrición*” (90-91), “*Salud para todos y todos para la salud*”, “*Salud y Medio Ambiente*”, “*El impacto de la ciencia en la Humanidad y su entorno*”, “*Alimentación y salud*”, “*Claves para pensar un mundo global y solidario: Norte-Sur en los 90*” (91-92) eta aurtengo ikasturteko “*Kultur ikastaroak: Gehiengo nagusirako bidean*” izeneko ekitaldia, “*Occidente y el “otro”: una historia de miedo y rechazo*” izeneko programa ezik, *ingurugiroaren* problematikarekiko erlazionaturiko inolako ikastarorik ez dela eskeintzen ikusten dugu.

Berriz, Unibertsitateak udan antolatzen dituen ekintzetan, bai E.H.U.ak antolaturik bai Udako Euskal Unibertsitatekoetan (UEU) *ingurugiro* problematikari buruzko ikastaroen agerpena gero eta handiagoa izaten ari da.

1993.eko XII. Uda ikastaroen ekitaldien barnean Hezkuntza atalean “*Educación ambiental: Desarrollo de programas de investigación-acción en la escuela*” izeneko mintegia eta *ingurugiroari* buruzko atal monografikoan: “*Recuperación del medio ambiente de nuestras ciudades*” eta “*Economía y medio ambiente Teoría y Práctica*” izeneko ikastaroak eskaizten ziren.

1993.eko XXI. Udako Euskal Unibertsitateko ekitaldietan *ingurugiro-Heziketari* buruzko mintegi bat gauzatu da Natur Zientzien arloan, halaber, *ingurugiro* problematikarekiko erlazionaturiko beste zenbait ikastaro aurreko ekitaldietan antolatu egin dira, ondoan aipatzen diren arloetan: Natur Zientziak, Ekonomia, Soziologia eta Nekazaritza.

E.H.U.ak *ingurugiro*-problematikarekiko, nahiz sentsibilizazio-mailan, nahiz sakontze-mailan, azaltzen duen arduraren araberez, beronen ekitaldiak orohar aztertu ez gero, ez dugu aurkitzen egoerak eskatzen duen erantzuna, eta hau ez da hemen gertatzen den gertaera isolatua, Estatu Españoleko beste Unibertsitateetan egoera antzekoa gertatzen da: José Manuel Gomezek, Salamankako Unibertsitateko Ekologia-Katedratikoa, honen antzeko foro batetan, datozen hitzetan dioenez araberez: “*Necesariamente en educación ambiental —lo sabéis todos— es muy difícil decir nada nuevo, ¿Qué os voy a decir nuevo de educación ambiental, sobre todo la reactiva a EGB, incluso en la enseñanza media, atendándose a la nomenclatura anterior? Hay experiencias, ya se ha trabajado en ello, hay un punto de referencia, hay ya muchas cosas que decir. El personal está motivado. En la universidad no tenemos historial de educación ambiental todavía, ya veréis donde estamos, y lo que se pretende es otra cuestión, es otro mundo*”.

Hemengo egoerara itzuliz, aipaturiko II. Ihardunaldien Unibertsitate taldearen ondorioetan Unibertsitateak, *ingurugiro-Hezierarekiko* duen hutsunea betetzeko dituen

zenbait mugapean alpatzen dira, eta gehienak, bi urte pasa ta gero, gaurregun ere gertatzen dira.

“*ingurugiro-Heziketak ingurunearen beharrei eta behar soziaiei erantzuteko eskatzen duen edozein aidaketaren aurrean zurruntasun eta inertzia handia dago erakunde honetan*”

“*Ez dago ingurugiro-ekimen eta proiektzio kontzientzia hedaturik, ez gizartean eta ezta ere komunitate unibertsitarioan*”

“*Unibertsitatea eta Gizartearen arteko harremana murritza da. Prestakuntza sektorial unibertsitarioak ez dio gizartearen eskaerari erantzuten, edoietara honek ez du txertaketa profesionalerako esparru egokirik eskaintzen.*”

“*Ekimen indibidual, esporadiko eta sakabanatu batzu daude, gero eta gehiago, baina ez dago beraien arteko koordinaziorik, ezta prestakuntza plan harmonikorik*”

“*Unibertsitatean gauzatu diren ingurugiro-Heziketako ekimenetan, disziplina bakoitzak ez ditu besteak haintzakotzat hartzen eta profesioak korporatibismo tradizionalan ezkutatzten dira, inguruaren ezagupen integralerako oinarri egokiak oztopatuz.*”

Kontestatu honetan erraz uler daiteke oraintxe burutzen ari garen Ikasketa Plangintza berrietan, Irakaslegoaren Titulazlo berriei dagokienez, gertatu dena.

Egoera honea ikusirik, asignatura diseinatzerakoan erronka handiari aurre egin behar diogu, gure asignatura *ingurugiro*-perspektiba global, sistemiko eta konplexuaz garatzeko asmoz Honela ez bada, unibertsitate-aurreko irakaskuntzen irakaslegoak, neska-mutilengan *ingurugiroaren* aldeko jokaerak sortarazteko, beharrezkoak diren gaitasunak, prozedurak, baloreak eta jarrerak gara ditzala, zail ikusten dut.

Halaber, unibertsitatea orohar harturik, irakasleek behar duten aipaturiko prestakuntza bereziaren gain, unibertsitateko ikasle guztiek *ingurugiroarekiko* sentsibilizazioa eta formakuntza ere behar dute Baina nola egin daiteke hau? Europan garatzen edo proposatzen ari diren bide batzuk plazaratuko ditut geroko debaterako.

— Lizenziatura tekniko eta esperimentaletan ekologia, ekonomia, demografia, etika eta holakoak sartzeari, baina gehienetan ez da proposatzen giza-zientzien karreretan ekologia, ekonomia, ... sartzeari.

— Ikastaro, mintegi, hitzaldia, ihardunaldiak eta abarren bonbardaketa.

— *ingurugiro-Hezieraren* garapenerako beharrezko den disziplinarrekotasuna funtsezkotzat harturik, irakaslegoa biltzea gogeta eta eztabaida sakonen ondorioz *ingurugiro-zientzietako* berezko teoria edo disziplina sortzeko asmoz *ingurugiro-Heziera* disziplinarreko talde edo mintegietan garatu behar denaren ikuspuntutik abiatuz.

Baina, *ingurugiro-Heziera* etengabekoa izan behar dela pentsatzen badugu, Derrigorrezko Bigarren hezkuntzatik irteeretan ikasle guztiak ez dira joaten Unibertsitatera, batzuk lan munduan sartzen dira, beraz hiritarrek *ingurugiro-Hezieraren* arloan dituzten beharrei erantzuna emateko heziketa ez-formala premiazko eta funtsezkotzat jotzen dut ere.

Esan dudanez, unibertsitatean gaurregunean ez daukagu *ingurugiro-Hezierarekiko* disziplinarreko hezkuntza, baina disziplinetako aditu eta especialista taldeen ekarpena guztiak bilduz has gaitezke *ingurugiro-Hezieraren* irakasle multzoa formatzen, etengabeko prestakuntzaren bidez, hasiera batean, arlo honetan unibertsitate-aurreko irakaskuntzetan

dauden hutsuneak eta batez ere, hezkuntz sistemaren erreformak planteatzen digun apostua zehar lerroen tratamendua aurrea eramateko.

Esparru honetan kokatzen da ikasturte honetan garatzen ari garen lehen aipatu dudan Ingurugiro-Hezierari buruzko Graduondoa.

Hildo honetatik, ikastaroaren diseinua egiterakoan, maila eta arlo diferenteetako irakasleekin osatu genuen talde-aholkularia, eta datozen *idea nagusiek* artikulatu dute ikastaroaren programa.

- Ingurugiro-balore berriak. Hau da, gizakiok, nahiz giza-banako, nahiz kulturalki antolaturiko talde bezala, gure inguruarekiko erlazioa eta berari egindako eraginak etika berri batetatik ikustea.
- Ingurugiro-problematikaren irispide globala. Ikuskera sistemiko eta interaktiboa.
- Garapen sostengarria aukera gisara.
- Hezkuntz perspektiba konplexuak aspektu komunikakor eta partizipatiboetan.
- Ingurugiro-Hezieraren arloko ekintza profesionalerako baliabide eta estrategia didaktikoak.
- Zehar lerroen integrazioa

Ikastaroaren helburuak datozenak dira:

- Prestakuntza lortu ingurugiro eta Ingurugiro-Hezieari dagokionez.
- Ikastetxeko Proiektu Hezitzaile eta Kurrikularretan Ingurugiro-Heziera integratzeko aukerabideak antzeman.
- Ingurugiro-Hezierarako tresna, baliabide eta tekniken erabileran ohitu.
- Ingurugiro-Hezierarekin bat datozen ikaspen-eredu eta ebaluaketarako eraikuntza indibidual eta kolektiboa sustatu teorikoki zein praktikoki.
- Gogoeta sustatu gizakiek ekosistemetan duten funtzioari buruz eta harreman mota berriak bultzatu sistema sozio-naturaletan.

Kurtoaren egitaraua datozen ataletaz osatzen da.

O Moduloa: *Graduondoaren aurkezpena eta hasiera ematea*

II Multzoa: *Ingurugiro-hezieraren oinarri kurrikularretan sakontzea*

III Multzoa: *ingurugiro-hezieraren praktika, arazo gisara*

IV Multzoa: *interesgune baten disziplinarretako tratamendua. Ingurugiro-Heziera hirigunean: Hiria uraren bideari jarraitzea.*

V Multzoa: *Ingurugiro-hezierari buruzko programa baten diseinu eta aplikazioa hatera jartze eta ebaluaketa saioa.*

BIBLIOGRAFIA

AKADEMI ANTOLAKUNTZARAKO eta IRAKASLEGORAKO EREKTORDEA, 1991, 92,93. "E.H.Uko 1991-93, 92-94 eta 93-95 Biurteetako Doktorego-Programak". EHUko Argitarapen Zerbitzua Bilbo.

AKADEMI ANTOLAKUNTZARAKO eta IRAKASLEGORAKO EREKTORDEA, 1991, 92, 93. "E.H.Uko 1991-92, 92-93 eta 93-94 ikasturteetako Graduondoko Berezko Tituluen eskaintza". EHUko Argitarapen Zerbitzua: Bilbo.

CEIDA ETA HAGINA, 1992, "Ingurugiro Heziketaren II Ihardunaldiak, Ondorioak" 1991eko urriak. Bilbo.

EHU, 1993, "XII. Uda Ikastaroak" Informazio liburuxka. Donostia.

E.H.U. eta GASTEIZko UDALA, 1990, 92, 93 "90-91, 92-93 eta 93-94 ikasturteetako Unibertsitate-Hedakuntza Iharduera eta Ikastaroak". Informazio-Liburuxka. Gasteiz.

HEZI, HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA eta EHU, 1990, 91, 92. "1990-91, 91-92 eta 92-93 ikasturteko Gaurkotze zientifiko eta didaktikorako Plangintza".

IRAKASLEGO UNIBERTSITATE HEDAKUNTZARAKO ERREKTORADUTZA eta HEZKUNTZA ZIENTZIEN INSTITUTA. 1991. "Ingreso y Planes de Estudio 1991-1992 EHUko Argitarapen Zerbitzua Bilbo.

XVII, XVIII, XX eta XXI. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA, 1989,90, 92,93. Informazio-Liburuxka, Iruñea.

EUSKAL IKASKUNTZA HEZKUNTZA SAREAN INGURUGIRO HEZIKETAREN MAHAI INGURUA

M^a ASUN FERNANDEZ

Ingurugiro heziketaren zabalketarako gomendioak

Ingurugiro Heziketa modu egokian hedatzeko, Instituzioen koordinazioa lortzea, baliabideen erabileraz erabakiak hartzen dituztenen formakuntza bultzatzea eta informazioaren zabalpena ziurtatzea ezin bestekoak dira, horrela bakarrik gauzatu daitezkelako Ingurugiroaren aldeko apostua Hezkuntza Sistemari.

SARRERA

Ingurugiro Heziketaren integrazioa Hezkuntza sistemari, nolakoa izan daiteken, ikusi baino lehen, komeni da Ingurugiro Heziketaren ezaugarri batetaz ohartzea; Ingurugiro Heziketaren izaerak berak gainditzeko duela, hain zuzen, hezkuntza sistemaren muga, Ingurugiro Heziketa jende guztiari zuzendu behar zaiolako, Hezkuntza formalean eta ez-formalean hedatu behar delako eta faktore fisiko, sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalak integratu behar dituelako.

Beraz ezaugarri hauek kontutan harturik CEIDA ikastegiak zer funtzio betetzen dituzten eta zer funtzio bete beharko lituzketen etorkizunean, azaltzen saiatuko naiz.

CEIDA helburuak eta garatze lerroak

CEIDA Centro de educación e investigación didáctica ambiental hitzen akronimoa da eta euskerazko itzulpena korapilotsua gertatzen delako edo, izen bakar horrekin geratu da hizkuntza bietan.

1990an, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailaren akordio baten ondorioz sortu zen lehen CEIDA, Bilbon, Ingurugiro Heziketaren integrazioa eta dinamizazioa Hezkuntza sistemari garatzeko asmoz.

Gaur egun beste bi zentro gehiago daude, Legazpin eta Basaurin eta guztira zazpi irakasle, zazpirak Hezkuntzakoak eta zerbitzu komisioan.

Aipatutako helburua garatzeko jarraitu ditugun bide batzuk, labor-labor azalduko dut ondoren:

Informazioa batez ere hiruilabeteroko boletinen bidez.